

## **ELIKADURA PLANTA ERABILTZEKO PROTOKOLOA**

*Elikadura plantako batzordeak 2017ko otsailaren 3ko bileran onetsita*

Farmazia Fakultatearen Elikadura Planta Elikagaien Teknologia arloaren ekimenaz sortu zen bere irakaskuntza premiei erantzuna eman ahal izateko, nahiz eta beste arlo batzuek ere badarabilten. Plantak ekipo eta instalazioak ditu bereziki bideratuta irakaskuntza betebeharrak, bai eta fakultateko ikertalde batzuek duten tresneria ere.

Elikadura plantak Elikagaien Zientzien inguruko gaietarako irakaskuntza laguntzea du helburu nagusi, Farmazia Fakultateko ikasleen onura lehenetsita. Gune honen bidez, eskala txikian gauzatu ahal dira elikagaiak laboratzeko hainbat prozesu, elikagaien industrian baliaituko baldintza bertsuetan. Bertan, ikasleak gertutik ikusi eta ezagutu ahal ditu elikagaiak egin eta laboratzeko ekipo eta prozesu batzuk, bai eta zenbait aldagairekin esperimentatu ere, beti ere azken produktuaren ezaugarrietan duten eragina ulertuko badu.

Bigarren maila batean, elikadura planta ikerkuntzarako euskarri eta lagungarri ere izan daiteke.

Elikadura plantaren funtzionamendua honako protokolo honi lotuko zaio:

### **Elikadura plantaren funtzionamendua**

- Plantari dagokion irakaskuntza jarduna Akademi Antolakuntzarako dekanordetzak programatuko du. Irakasle arduradunek urtero eman beharko dute hurrengo akademi ikasturtean egin beharreko praktiken inguruko informazioa.
- Ikerketa jarduerak elikadura plantako batzordeak koordinatuko ditu. Planta ikerkuntzarako erabili ahal izateko eskaria batzordeko koordinatzaileari egin beharko zaio idazki arrazoituaren bidez, erabilerari legezkiokkeen datuak emanik.
- Ekipo espezifikokoak erabiltzeko eskaria material horren arduraren arlo edo ikertaldeei egin behar zaie, kasu kasuko arduradunaren bidez.
- Plantako instalazio orokorrak mantentzeko gastuak fakultatearen kargu izango dira.
- Jarduerak elikadura plantan eragindako material suntsikorraren gastuak kasuan kasu erabilera egingo duten arlo edo ikertaldeek hartuko dituzte beren gain.

- Ekipo espezifikokoak mantendu edo, behar izanez gero, konpondu edo birjartzeko gastuak material hori erabili izan duten arlo eta/edo ikertalde arduradunen kargu egongo dira, erabileraren maiztasunaren arabera.
- Ekipo eta aparailuen garbiketa eta mantentzeko lanak, irakatsitako irakaskuntzaren arlo arduradunetako AZPko kideek egingo dituzte, plantaren operatibitate egokia mantenduko bada. Halaber, hiruhileko bakoitzaren amaieran, aparailu eta ekipokoak garbitu eta begiratu dira, bai eta AZPko pertsonalak ere. Ikertaldeek ekipu espezifikorik erabiliko balute, beren kargu egongo da erabilitako ekipoen garbiketa.
- Batzordeak elikadura plantan diren instalazio eta ekipoen inbentario eguneratua izango du, bertan agertuko delarik kasuan kasuko materialaren arduraren duen arloa edo ikertaldea.

#### **Elikadura plantako batzordea**

- Batzordeak bost kide izango ditu:
  - Akademia Antolakuntzako dekanordea
  - Elikagaien Teknologiaren arloko bi ordezkari
  - Nutrizioa eta Bromatologiaren arloko ordezkari bat
  - Fakultateko administratzailea
- Batzordeko kideak lau urtetarako izendatuko dira, dekanotza taldearen agintaldiarekin bat etorrira.
- Batzordeak koordinatzailea hautatuko du bere kideen artean.
- Batzordeak ohiko bilera egingo du akademi ikasturte bakoitzaren amaiera, plantak ikasturtean zehar izan duen jardueraren balantzea eta hurrengo akademi ikasturterako jardueren aurreikuspena egiteko. Ezohiko bilera egingo du batzordeko kideek hala eskatzen dutenean.

#### **Batzordeak honako eginkizun hauek edukiko ditu:**

- Instalazio orokorrak garbi eta behar bezala mantentzeko aurreikuspena egingo du. Plantan diren ekipu eta aparailuen garbiketa eta mantentzea kasuan kasuko materialaren arlo arduradunak egingo ditu.
- Plantaren funtzionamendua bermatzeko ekipamendu orokorra (berria zein berritzekoa) eskatzeko aurreikuspena egingo du. Ekipu espezifikokoak erabiltzeko eskaria halakorik beharko lukeen arloak edo ikertaldeak egingo du.

- Ikerketa jardueri dagokienean, plantaren eta instalazio orokorren erabileren erregistroa eta koordinazioa egingo du. Ekipo espezifikoak erabiltzeko eskaria material horren ardua daramaten arlo edo ikertaldeein egin beharko zaie.
- Plantaren erabiltzeak sortutako gorabeherak aztertu eta ebazpidea proposatuko du.
- Elikadura plantaren erabilera eta funtzionamenduaren inguruan hartutako erabakiak bete daitezzen zainduko du.

**Batzordeko koordinatzaileak honako eginkizun hauek edukiko ditu:**

- Batzordearen bilerak deituko ditu eta hauen eguneko aztergaiak zehaztuko.
- Plantaren erabilera erregistratu eta koordinatuko du ikerketa jardueri dagokienez.
- Gorabeherak erregistratuko ditu batzordeari helarazteko.